

I

«Anafora» hitzak *errepika* esan nahi duela uste dut (Erretorikan, behintzat, ezen Liturgian beste zerbait da). Guk, hemen, eta hasteko, «anaforiko» hitzaz esan nahi duguna mugatu behar dugu. Galdereetan erabiltzen den izenorde bat bera, erantzunetan juntagailutzat hartua denean, horri «anaforiko» deituko diogu. Juntagailu hauek honela deitu izan ditu, orain baino lehen, Azkue jaunak ¹.

Gaztelaniaz guztiz ezaguna da usadio hori: «¿Por qué?» eta «porque», «¿Cómo?» eta «como», «¿Dónde?» eta «donde», «¿Cuál?» eta «cual», «¿Quién?» eta «quien», «¿Qué?» eta «que». Beste hizkuntzetan agian ez da hain garbi ageri joko hau, baina, aski arrunta dela uste dut hitz bat galdetzaile izatetik erlatibo edo juntagailu izatera pasatze hori.

Gure idazle zaharretan periodoa edo perpausen kateatzea —bat nagusi delarik eta besteak honen menpeko (subordinazio nahiz koordinazio gisa hari menperatuak)— neurri handi batean lortua ikusten dugu. Begien bistan dago kateatze horiek egiteko tresneria edo eratzunak behar-beharrezkoak direla.

Azkuek dio euskaraz subordinaziozko loturak maizenik aurrizki edo atzizkien bidez egiten direla; koordinaziozko loturak, aldiz, juntagailu diren hitzen bidez, hots, konjuntzioen bidez: «Las conjunciones afijos son, por lo general, subordinativas, y coordinativas las conjunciones vocablos» ². Oharpen honek zuzena dirudi.

Baina, dagoeneko, bitartate handi batekin topo egiten dugu: sortaldeko euskalkiek *bait*-aurrizkia ezagutzen dute eta sartaldekoek ez. Sortaldeko euskalkien subordinazio-sisteman zeregin guztiz apartekoa eta garrantzitsua betetzen du aurrizki honek. Sartaldeko euskalkiak, ordea, aurrizki hori ez dutenez gero, *-n* atzizkiaz baliatzen dira, neurri batean beste aurrizki horren zeregina betetzeko.

Badira, noski, beste aurrizki edo atzizki batzuk ere euskara orokorrean subordinazioa adierazteko erabiltzen direnak, hala nola *ba-*, *-arren*, *-gatik*, *-lako* etab. Baina gu *bait*-aurrizkiaren inguruan eraikitzen den subordinazio sistemari soilki lotuko gatzazkio. Hori da hemen azaldu nahi duguna.

Azkueren hiztegian *bait*-aurrizki honi eremu hau aitortzen zaio: AN, BN, L, R. Zuberoan *beit*-aldea erabiltzen da ³. Eta beronezaz hara zer dioen Azkuek: «Prefijo de la conjugación, que forma el modo causativo» ⁴. Uste dut «causativo» hitzak Gramatika alorrean beste zerbait adierazten duela ⁵. Zernahi gisaz, Azkuek hitz horrekin esan nahi duena garbi dago: kausa edo zergatia adierazteko erabiltzen dela aurrizki hau, hots, perpaus kausalak eratze.

¹ Azkue, *Morfología Vasca*, p. 365.

² *Morfología Vasca*, p. 478.

³ Ikus Lhande, *Dictionnaire Basque-Français*, s.v. *Bait*.

⁴ *Diccionario Vasco-Español-Francés*, s.v. *Bait*.

⁵ Ikus F. Lázaro Carreter, *Diccionario de términos*

filológicos, p. 87.

Azkueren irakaspen honek arrakasta handia izan du, Hegoaldean behintzat, gure mende honetan. Gure idazleen artean aurrizki hau zeregin horretarako kokatua edo murriztua ikusten dugu. Baina euskal literatura zaharra (eta bai Iparraldeko berria are) ikustea aski da aurrizki honen zeregina askotaz ere zabalagoa dela ohartzeko.

Bait- aurrizki honek sortaldeko literaturaren tradizioan baditu bi enplegu-suerte edo erabilpen-mota: 1) Lehenbizikoa da anaforiko batekin erlazonaturik dagoenean, esan nahi baita: menpeko den perpaus batek hastapenean anaforiko bat izan ohi du eta anaforiko horrek *bait-* aurrizkia aditzean egotea galdegiten du. Subordinaziozko perpaus-mota asko era hortara aurkitzen ditugu taxutuak. 2) Bigarrena da *bait-* aurrizkia, bera bakarrik ezein anaforikorik gabe, azaltzen denean.

Bigarren modu honetan ageri denean ez da beti erraz zer adierazten duen epaitzea. Badirudi ia plegu guztietara makurtzen dela. Subordinazio edo menpekotasun-marka adierazten du huts-hutsik, eta esanahi zehatzago bat eman nahi badiozu, ingurunetik atera beharko duzu. Lanak izaten dira askotan ea balio kausala, erlatibozkoa ala bestelakoa ote duen erabakitzen.

Anaforikorik gabeko *bait-* en erabilera honek halako txairotasun bat ematen dio esaldiari, baina zehaztasunaren kaltetan. Balio mugatu eta jakin bat ezin izan hainbeste zereginetarako erabiltzen den tresnak.

Esanahi bat ongi mugatua eta zehatzua ez zuelako, hortik etorri zen, itxuren arabera, anaforikoen laguntza behar izatea. Horiek zedarriztatzen dute kasu bakoitzean perpaus batek duen ñabardura edo balio jakina. Era horretara munta daitezke perpaus-mota asko eta asko beren esanahi zehatz eta argiaz. Adibidez:

Zeren...bait- (kausala)

Zein...bait- (erlatibozkoa)

Noiz ere...bait- (denborazkoa)

Nola...bait- (moduzkoa eta bai kausala ere)

Hain...non...bait- (konparaziozkoa). Eta abar.

Agi denez, mintzamolde edo itzulika horietan denetan *bait-* aurrizkia agertzen da, baina ez bakarrik, anaforiko batzuei lotua baizik, eta horien laguntzaz mota askotako perpaus subordinatuak eraikitzen dira.

Bait- aurrizkiaren erabilpen hau —anaforiko bat lagun duela, alegia— guztiz arrunta da euskal literatura zaharrean (Iparraldekoan, edo, hobeki esan, sortaldekoan, zeren Nafarroa ere hor sartzen baita).

Baina erabilpen honek ez du bestea kendu edo ezabatu, hots, *bait-* soilik, ezein anaforiko gabe erabiltzearena. Biak ikusten dira idazleetan, nahiz eta anaforikoen laguntza duena askotaz ere maizago ageri. Bi enpleguok bizi dira; biak ditu idazleak eskumenean, orain bata eta gero bestea erabiltzeko. Eta hau da notatzekoa: *bait-* soilarekin eta *bait-* + anaforikoarekin perpaus subordinatu mota asko adieraz daitezke. Diferentzia hau nabari da, ordea: *bait-* soilarekin moldatzen direnak ez dakizu askotan zer diren: kausalak diren, erlatibozkoak diren, konpletiboak edo zer. Besteak, bai, argi eta garbi mugatuak eta zehaztuak egon ohi dira.

Gure mendean gramatikalari eta idazle batzuen eraginez inposatu da iparraldeko idazleetan ere anaforikoetara jotzeko debekua; eta orduan *bait-* soilaren erabilera izugarri ugaritu da, zerenahi perpaus mota beronekin adieraziz. Baina ez dakit hori aurrerapena den, ala atzerapena. Idazmota asko daude, zeinetan, oroz gain, argitasuna eta zehaztasuna nahi baita. Eta alde hortatik anaforikoek mesede ederra egiten dute perpausaren nondik norakoa jakiteko. *Bait-* soilaz topo egiten duzunean, aldiz, askotan ez dakizu kausal baten aitzinean zauden, ala erlatibozko, edo beste gisazko perpaus baten aitzinean.

Hizkuntzak —eta batez ere hizkuntza idatziak— bere tresna propioak nahi eta behar ditu bere zeregina betetzeko, ahal bezanbat tresna zehatzak eta ongi mugatuak, eta horiek kentzen badizkiozu, ezin du bere zeregina bete. Iparraldeko idazle zaharrek, ene ustez, oraingoak baino argiago eta zehatzago adierazten zituzten beren gogoetak, eta besteak beste, hortik uste dut heldu dela oraingoan iluntasuna, hots, anaforikoen laguntza gaitzestetik, eta *bait*- soila zernahitarako eta beti erabiltzetik.

Diodan hitzerdi bat *ezen*-i buruz. Ene ustez, *ezen* ez da anaforikoa, nahiz eta gaitzespenaren zaku berean erori den haiekin batean. (Hori gure artean, Hegoaldean. Iparraldeko idazleek, nahiz eta *zeren*-en erabilerari ihes egin, *ezen* ez dute zapuzten).

Ezen ez da anaforikoa, esan dugu. Izan ere ez da ezagutzen euskaraz honelako galdetzailerik. Gainera, ez du behar aditzean, anaforikoek bezala, *bait*- edo *-n*-ren laguntza. Aldaerak ezagutzen ditu *ezen* honek euskalkion arabera: *ezi*, *ezik*, *eze*, *ze*. Azkeneko hau oso erabilia da gaur arte bizkaierazko herri-euskararen perpaus kausaletan, konpletibo batzuetan, konparaziozko perpausetan. Azkuek bere Hiztegian mezpreziozko izenaz izendatzen du: «palabreja»⁶.

Ateraberri dira Arestik Tauer jaunari egindako eskutitz batzuk⁷. Bertan bizkaitarren *ze* hori maiz agertzen da, baina argitalpenean —nahiz eta ez beti— *zer* jartzen du (ez dakit zuzen ala oker). Adibidez: «Baina hain ospetsua da gaurko egunean bedorren izena euskaldunon artean, *zer* badirudi guk guztiok dugula bedorri iotzeko eskubidea»⁸.

«Gainera asti gutxi daukat, *ze* bizi garen parabisu urdinean, asko lan egin behar dugu, gutxi jateko»⁹. (Hemen, bai, *ze* jartzen du).

Baina ezkutitz berean, beheraxeago: «hain larritu zen koitadue, *zer...*»¹⁰.

Dena den, *ezen* aipatu badut, hori da hemen Hegoaldean anaforikoekin batera gaitzetsia izan delako, nahiz eta anaforikoa ez izan. Iparraldean ez, ez dira hortaraino heldu. Anaforikoetarik ihes egiten duten idazleek berek ere *ezen* gogoz erabiltzen dute.

Mari Tere Echeniqueren liburua¹¹ aurkeztatu zenean, Aita Patxi Altunak halako harridura batekin galdetzen zuen anaforikoen enplegua nola izan daitekeen idazleen asmazioa, jakinik, alde batetik, Detxepare batek erabilpen hau ezagutzen duela, eta, bestetik, idazle honen hizkera guztiz herrikoia dela. Alfontso Irigoienek idatzi du¹² Altunaren galdera hura nik idatzitako pasarte batean oinarritua dela. Ez dakit hala den. Egon da, bai, enplegu horiek idazleen asmazioa direla esan edo idatzi duenik, eta ni ez naiz izan presiski horietakoa. Begien bistan da herri-euskararen bertan aurkitzen dugula, eta oso aspaldidanik, enplegu hori. Herrian aurkitu zutena gero idazleek aintzinate, bultzatu, zehaztu, borobildu eta mugatu egin zuten. Herritik jasotako zerbait, alegia, borobildu eta osatu egin zuten, beren premiei erantzuteko behar zen mailan.

Idazleei zor diegu subordinazio sistema bat guztiz tankeratua eta umotua edukitzea, nahiz eta horren hasierak herri euskararen bertan aurkitu. Izan ere, ahozko mintzairak horrelako periodo korapilatuen beharrik ez du izaten.

Adibidez, eta harrigarri bada ere, kausazko perpausak adierazteko, *-lako(tz)* atzizkia ez da balio honekin ageri idazle zaharrenetan. Geroago, bai, ageri da, baina orduan ere *zeren* + *bait*-en erabilera baztertu gabe.

Sartaldeko (*e*)ta ere kausazko balioaz erabilia, sortaldeko idazleetan ez da ageri. P. Altunak, nere hitz batzuk oker hartuz, esaten du ez dela egia nik diodana, baina berak aipatzen dituen

⁶ Azkue, *Diccionario* II, p. 423.

⁷ Ikus *Euskera* 1983, pp. 432 ss.

⁸ *Euskera* 1983, p. 432.

⁹ *Euskera* 1983, p. 434.

¹⁰ *Euskera* 1983, p. 434.

¹¹ *Historia lingüística vasco románica*, San Sebastián, CAP, 1984.

¹² A. Irigoien, «Nota sobre el uso en la lengua hablada de *zeren* o *zerren* en sentido causal en el siglo XVI» (Inprimatu gabea).

adibideek ez dute esanahi kausala, denborazkoa baizik, eta gainera, adibide horietan aditza ez dago jokaturia¹³. Gure egunetan, bai, aurkitu dut kasuren bat edo beste. Esate baterako, Belokeko *Otoizlari*-n¹⁴ irakurtzen dugu: «Zure bihotzean du-eta bere egoitza».

Altunak esaten du, gainera, aipatu artikulu horretan, *eta*-ren erabilera hau subordinatzaile—hots, menperatzaile— dela, baina ez dakit hori hala den. Subordinazioa eta Koordinazioa bereizteko euskaraz badugu erregela bat, eta da: hitanoko aditz-jokoa erabil ote daitekeen ala ez. Koordinatueta erabil daiteke, subordinatueta ez. Orain bada, *(e)ta* kausazko honekin zilegi da hitanoko aditz jokoa; *bait*-ekin, aldiz, ez.

II

Azken aldi honetan lanean aritu izan gara Lavieuxville-ren Bigarren Katiximarekin, «Lekukoak» bilduman bir-argitaratzeko asmoz. Liburu hau Baionan agertu zen 1733. urtean. Aski zaharra da, bada, euskal literaturan. Anaforikoen bidez eratutako subordinazio-sistema nolakoa den eza-gutzeko, liburu hau guztiz aukerakoa dela uste dut.

Baina ez dugu gai hau bere osotasunean hartzen. *Bait*-en erabilera (bai anaforikoekin eta bai anaforiko gabe), aztertu nahi dugu soilki, zenbait adibide liburu horretatik hartuz. Aipamenak egiteko erabiltzen dugun zenbakia ez da orrialdearena, Lekukoetan azalduko den testu-partizioarena baizik.

Hasteko, esan behar da *-lako(tz)* ez dela sekula agiri kausazko balioaz; *(e)ta* delako hori ere ez.

Bait- aurrizkia, berriz, zernahitarako erabiltzen du, bai bakarrik eta bai anaforikoekin erlacionaturik (anaforikoekin gehiago, noski, bakarrik baino).

Hona hemen *bait*-ekiko eraikuntzen zerrenda, gero bana-banaka zenbait adibiderekin hornitua agertuko duguna. Ez dugu iruzkin handirik egingo, zeren bere buruz mintzo baitira adibideok.

1. *Bait*- huts-soilaz eratutako eraikuntza.
2. *Cein* + *bait*- eraikuntza
3. *Cein ere* + *bait*- eraikuntza
4. *Ceren* + *bait*- eraikuntza
5. *Ceren nola* + *bait*- eraikuntza
6. *Hain* + *non* + *bait*- eraikuntza
7. *Hainberce* + *nola* + *bait*- eraikuntza
8. *Hainberce* + *non* + *bait*- eraikuntza
9. *Hala nola* + *bait*- eraikuntza
10. *Halako gisaz* + *non* + *bait*- eraikuntza
11. *Noiz ere* + *bait*- eraikuntza
12. *Nola* + *bait*- eraikuntza
13. *Nola* + *bait*- + *hala* eraikuntza
14. *Nolaco* + *bait*- eraikuntza
15. *Nor ere* + *bait*- eraikuntza

* * *

¹³ Ikus F. Altuna, «Las oraciones adversativas en vasco y en español», *Mundaiz* (Septbre.-Dcbr. 1982), pp. 2-7.

¹⁴ *Otoizlari*, 110 zenbakia, 4. orr.

Ikus ditzagun orain bana-banaka eraikuntza horiek zenbait adibiderek.

1. *Bait- huts-soilaz eratutako eraikuntza*

(28 zenbakia) *Galdea*: Nola eçagutcen da guizonaren arroçoina?

Ihardestea: Hura gai baita arroçoin emaiteco eguiten dituen gaucez, eta baitaqui cergatic eguiten dituen.

(188 z.) *Nondic heldu da Arramuco Igandea hain ohoratua baita Eliçan?*

(208 z.) *G. Noiz hasi içan dire Besta hunen beguiratcen? I. Eliçaco çazpi-garren mendearen hastean Bonifacio IV. Aita-Saindua cen denboran, harc Birgina Sainduaren eta Martir Sainduen ohoretan consecratu baitçuen Pantheon...*

(109 z.) *Bathaioa ezbaiteque ona arrosa urarequin, edo arnoarequin, edo uraz bertce cenbait edarirequin eguina.*

(126 z.) *Ene Jaincoa, eznaiz batere digne çu sar çaitecin ene baithan, bainan çu baitçara gu-ciz ona çure baithan dut ene esperança gucia eçarria...*

(210 z.) *G. Nola hori? - I. Eguiazco Eliça eguina baita guiristinoez, hain berce harri biciez beçala edo bicitcearen haste bat dutenez beçala.*

(19 z.) *Maraco urac baitciren khiretsac, Moysec harat etchatu çuen egurrac eztitu cituen.*

(114 z.) *Nondic heldu da hain bertce guiristino baitire confirmacionea errecibitu dutenac, eta hain guti baitire gracia horiec guciac dituztenac?*

(184 z.) *G. Cergatic da tristeciazco denbora bat guiristino onençat? - I.1. Hura baita denbora Jaincoa gehienic ofensatcen dena.*

Adibideetatik ageri denez, *bait-* honek, soilik erabiltzen denean —hots, anaforiko gabe—, anitz balio edo esanahi ditu, kausazkoa ere barne dela, noski; ñabardura horiek jasotzeko tokian tokiko kasuak aztertu behar dira, eta maiz-sarri, kasu konkretu batean, zein perpaus motatan kokatu behar den pasarte bat ez da erabakitzen erraz.

Katixima honetan askotaz ere maizago ageri da *bait-* aurrizkia anaforikoekin erlazionatua. Eta anaforiko horiei esker, perpaus bakoitzaren mota eta esanahia zehazki mugatua azaltzen da. Hemen adibide batzuk aipatuko ditugu soilki, Katixima horretatik aterak, *bait-* + anaforikoaz nola menpeko perpaus ugariak muntatzen dituen ikusteko.

2. *Cein + bait- eraikuntza*

Erlatibozko perpausak muntatzeko erabiltzen du eraikuntza hau, baina kasu!, erlatibozko perpaus murriztaile ez direnak (*no restrictivas*), ez bastelakoak. Erlatibozko perpausak muntatzeko beste erak ere ezagutzen ditu, noski (*-n, -na, bait-* soila).

Adibideak:

(28 z.) *G. Guçona creatua içan denean Jaincoac eztio eman berce dohainic edo abantailic? -I. Bai, eman diozca arroçoina eta libertatea, ceinec alchatcen baitute berce creaturac baino gorago.*

(100 z.) *G. Cer dire Ispiritu Sainduaren dohainac? - I. Hec dire barneco gracia batçuec, ceinez gure baithan den Ispiritu Sainduac disposatcen baicaitu berehala eta animorequin obediterca haren inspiracionei...*

(108 z.) *G. Cer da Bathajoa? - I. Bathajoa da sacramendu bat, ceinac barkhatcen baitarocu bekhatu originala, eta eguiten baicaitu guiristino, eta Jaincoaren eta Eliçaren ume.*

(117 z.) *G. Orai ezdenaz gueroztic guehiago Tiranoric, confirmacionearen beharric baduçu? - I. Bai, 1. Hereticoac gatic, ceinec eguin ahala eguiten baitute gu bide gaichtoan eçarri nahiz. 2. Libertinac gatic, ceinec trufatzen eta mespreçatcen baitituzte Evangelioco maximac seguitcen dituztenac. 3. Munduco gendeac gatic, ceinec bethi persecutatcen baitituzte gende prestuac.*

(208 z.) ...*hura cen Templu bat, ceinetan Paganoec adoratcen baitcituzten Jainco falso guciac.*

(193 z.) *G. Cer da Mendecosteco Besta? - I. Hura da eguna, ceinetan Ispiritu Saindua jautsi iñan baita Apostoluen gainera...*

(111 z.) *G. Cer erran nahi du hari escuan emaiten dioten argui phiztuac? - I. Jaincoaren amodioa, ceinaz bethea iñan behar baita, eta harc eman behar duen exemplu ona.*

3. Cein ere + bait- eraikuntza

(101 z.) *Cein ere berthutetatic sortcen baitire Ispiritu Sainduaren fruituac, berthute hec ezdetçagun behinere gure baithan alferric utz, bainan maiz eguin detçagun hequin actac.*

4. Ceren + bait- eraikuntza

Kausazko perpausak muntatzeko Katixima honetan arruntki erabilia. Baina hemen ere esan behar da gure autoreak badituela kausazko perpausak eraikitzeke beste era batzuk ere (*ceren + -n, ecen, -naz gueroz, nola + bait-*) eta badakiela noiz baliatu bakoitza.

Hemen adibide bat edo beste aipatuko dugu soilki, lan hau alferrik ez luzatzeagatik:

(28 z.) *G. Certan da agueri Jaincoaren imagian eta idurian creatua iñan dela gure arima? - I. Ceren hura baita ispiritu bat ecin hil daitequena, Jaincoaren eçagutceco eta maitatceco gai dena.*

(86 z.) *G. Cergatic bekhatu horiec deitcen tuçu Capitalac edo Buruçaguiac? - I. Ceren horiec baitire bertce bekhatu gucien ithurriac eta ethorqui.*

(107 z.) *G. Cergatic dioçu Sacramendua dela seinala bat? - I. Ceren harc eçagut araxten baitarocu ecin ikhus daitequen gracia bat, berac gure arimetara ekharcen darocuna.*

(161 z.) *G. Igandetan eta bestetan ez othe da othoitz guehiago eguin behar bertce egunetan baino? - I. Bai, ceren egun hec baitire bereciqui othoitz eguiteco destinatuac eta eslegituac.*

(201 z.) *G. Cergatic Eliçac beguiratcen du haren sorceco Besta? - I. Ceren saindu hura sorthu baitcen graciazco estatuan, bere Amaren sabelean santificatua iñan cen ondoan.*

Ikusten denez, eraikuntza honetan *ceren* anaforikoa beti kokatzen da perpausaren hasieran eta *bait-* aurrizkia eta aditza egon daitezke anaforiko honetatik gehiago edo gutiago urrunduak. *Ceren* hau, berez, *cer* galdetzailearen kasu edutezkoa (posesiboa) besterik ez da.

5. Ceren nola + bait- eraikuntza

(75 z.) *G. Cergatic gara obligatuac hec eguiten dituzten leguei eta ordenancei obeditcera? - I. 2. Ceren nola Ispiritu Sainduac hec eçarri baititu gure guidatceco eta gobernatceco, hec baitute bothere leguen eta ordenancen eguiteco.*

6. Hain + non + bait- eraikuntza

(20 z.) *G. Cer aditcen duçu nihoren manuco ez içaiteaz? - I. Aditcen dut, Jaincoa hain nausi dela gauça gucien, non ecin baitaiteque nihoren menean edo beharrean.*

(110 z.) *Hain necessarioa da non haurrac ecin iñan baitaitezque salbatuac bathajatuac iñan gabe.*

(73 z.) *G. Errestitucionearen eguiteco edo bercenaren bihurceco obligacionea hersia da eta haguitz handia? - I. Bai, hain hersia da non bihurceco gogo on bat eta chede eguiatzco bat ezduena, ecin iñan baitaiteque salbatua, eta ecin errecibi baiteçaque absolucioneric.*

(188 z.) *Orcegun Saindu arraxean Gorphutz Sainduaren Sacramendua ordenatu çuen ondoan Olivetaco Baratcean sofritu çuen hagonia bat hain borthitça, non iñan baitçuen odolezco icerdi bat.*

7. *Hainberce + nola + bait- eraikuntza*

(94 z.) *Gure exemplu onaz eta gure obra onez Jaincoari irabaz detçogun ahal badaguigu hain berce arima, nola gal araci baitugu gure exemplu gaichtoz.*

(125 z.) *G. Bekhatu mortalic ez içan arren, disposicione horiec guciac ezdituztenac errecibitcen othe dute Jesu-Christo comunionean? - I. Bai, bainan hec ez dute comunionetic hain bertce probetchu atheratcen, nola disposicione horiec guciac dituztenec eguiten baitute.*

8. *Hainberce + non + bait- eraikuntza*

(30 z.) *Eçagut eta aithor deçagun Jaincoa ahala ona dela, hainberce maitatu gaituenaz gueroz, non bere Seme bakburra heriotcera libratu baitu gure salbatceco.*

9. *Hala nola + bait- eraikuntza*

Ceren comunione ephelec injurio eguiten baitiote Jesu-Christo gure Jaunari, hala nola Jaun handi bati injurio eguin baileçoque norc ere errecibi baileçaque bere etchean beguitarteric eguin gabe eta hari damu eguin ahal deçoqueten gauçac handic khendu gabe.

10. *Halaco guisaz, non + bait- eraikuntza*

(127 z.) *G. Nola atchiqui behar da comunioneço dafaila? - I. Hedatu behar da halaco guisaz non, baldin Ostia saindua Apheçaren escuetaric erorcen baliz, bailiboaque dafailaren gainera, arropen gainerat edo lurrerat erorcera utci gabe.*

Azkeneko eraikuntza hauek konparaziozko perpausak dira. Bi perpausen artean jokoa edo lotura dago eta bigarrenak anaforikoa eta *bait-* aurritzia du berekin.

11. *Noiz ere + bait- eraikuntza*

Jakina da *-nean* atzizkiaz denborazko perpausak eratzen dituela euskarak. Gure Katiximan ezagunak dira horiek ere, noski. Hemen anaforikoaren bidez moldatutakoen adibide batzuk aipatzen ditugu.

(42 z.) *Hequin bozcarioa içanen da infinitua, ahala handia eta pare gabea, noiz ere Jesu-Christoc khoroatuco baititu hequin obra onac bekhatoroson aiticinean, ceinec baitçuten hequinçat mundu huntan mesprecio handi bat.*

(145 z.) *Jujamendu egunean guc içanen dugun ahalqueria eta confusionea, noiz ere confesatcera ecin ausartatu içan garen bekhatu hura mundu guciaren bistan içanen baita aguertua eta descubritua.*

(80 z.) *G. Cein dire casu hec, hei ere ihes eguitecoac? - I. Lehena da, Noiz ere baita arriscu hequin exempluec eta hequin solasec bekhatu eraguinen darocutela. Bi-garrena da, Noiz ere guc hequin hantatceac escandala eman baileçaque.*

(84 z.) *G. Bekhatua noiz da mortala? - I. Noiz ere materia handia baita, eta borondate osso eta perfet batequin eguiten baitugu.*

(197 z.) *G. Egun huntan cer sentimendu içan behar da gure bihotcetan? - I. Erregue David sainduac içan cituen sentimendu berac, noiz ere Arca eramana içan baitcen Obededomen etchetic.*

12. *Nola + bait- eraikuntza*

(203 z.) *Nola guiristinoen odolaren eta biciaren ondoan bethi baitcebilan, Aphecen Princeac eman ciozcan letrac Damasco Hirira joaiteco, han causituco cituen guiristino guciac preso harcera.*

(87 z.) *Ez gaitecin secular banitatez minça guere buruez, ez guri uquitcen çaiçquigun gauceç, nola baitire gure abaideac, gure ontasunac, gure obra onac, &c.*

(106 z.) *G. Cerucotz probetchos denic cerbaiten eguiteco asqui othe laitezque campoticaco gracia hec?* - I. Ez, bainan nola Jaincoac nahi baitu guizon eta emaztequi guciac salba daitecin, campoticaco gracia hec laguncen tu ordinariozqui barneco graziez.

(118 z.) *G. Confirmatcean cer erakbustera emaiten du Olioac?* - I. Nola Olioac baitu heda- tceco edo banatceco eta indarren emaiteco berthutea, hura da Ispiritu sainduaren gracia duen abundanciaren eta indarraren seinalea.

Eraikuntza honen bidez modua eta bai kausa ere adieraz daiteke.

13. Nola + bait- + hala eraikuntza

(24 z.) *G. Jaincoac certaco creatu tu içarrac, aciendac, eta lurraren gainean diren gauça gu- ciac?* - I. Nola Jaincoac bere cerbitçuco creatu baitu Guizon, hala gauça hec guciac creatu tu Guizonaren cerbitçuco.

(185 z.) *G. Cer da colacione hura?* - I. Nola Eliçac ez baitu legueric eman colacione haren eçarceco, bainan choilqui toleranciaz uzten edo permetitcen baitu colacione eguita, hala ezta le- gueric batere marcatcen duenic cein diren colacionean cilhegui diren gauçac.

14. Nolaco + bait- eraikuntza

(42 z.) *Ezdeçogun barkha gure buruari butsic batere chumea eta arina iduriagatic, nolacoac baitire umorezco edo bicitasunezco butsac, negligenciazcoac edo laçotasunezcoac.*

15. Nor ere + bait- eraikuntza

(92 z.) *G. Norc ere erraiten baitu, nere etsajari ezdiot gaitcic nahi, barkhatcen diot, bainan ezdut hura ikhusi nahi, ezdut hartaz minçatcen aditu nahi, haina salbatua içanen othe da?*

III

Ez goaz eraikuntza eta adibide multzo hau gehiago ugaltzera, zeren nahi genuena erakusteko aski baita. Nahi genuen erakutsi, alegia, nola euskal tradizioa anaforikoez baliatu izan den su- bordinazioko sistemak eskatzen dituen perpaus mota asko eta asko muntatzeko. Lavieuxvilleren Katixima hartu dugu lekuko, baina sortaldeko beste edozein idazlerekin (pixka bat zaharra bal- din bada) frogatzen berbera egin daiteke eta ondorio berberetara helduko ginake.

Sartaldeko idazleetan (hemen ere pixka bat zaharrak baldin badira) gauza bera ikusiko genu- ke; baina hauek *bait*-en ordeztu, *-n* atzizkiak baliatzen dira¹⁵. Beraz, anaforikoei esker, perpaus subordinatuaren multzo ederra eraiki ahal izan da, eta perpaus horiek beren balioa eta esanahia zehazki mugatua dute.

Baina guzti honek gure mendean erreka jo du. Iparraldean *bait*- soila erabiltzen dute zer- nahitarako, zehaztasunik gabe. Hegoaldean, berriz, *bait*- soil hori hartu da, baina esanahia murriztu egin zaio, esanahi kausala soilki aitortzen zaiolarik; eta halako banaketa egiten da, hots: kausal subordinatuetan *-lako* eta koordinatuetan *bait*- erabiliz. Baina hori eginez, bi makur egiten dira, ene ustez. Bat: *bait*-en balioa ikaragarri murriztu. Eta bi: subordinazio marka adierazteko dagoen aurrizkia bere eremutik atera arazi eta berea ez den esparrura (koordinaziora) aldatu. Edozein modutan ere, hizkuntzari bortxa egiten zaio.

¹⁵ Esan behar da sortaldekoek ere anaforikoa + *-n* eraikuntza erabiltzen dutela ñabardura berezi batzuk adierazteko (adibidez *zeren* + *-n*).

Iparraldekoek koordinaziozko kausalak adierazteko *ezen* eta *alabainan* gordetzen dituzte, Hegoaldekoek *bait*-era jo dute. Beraz, sistemaren lerro nagusiak ezabatu eta batasuna hautsi egin da.

Iñausketa honekin zer irabazi dugu? Idazlea beharrezko diren tresnez gabeturik uztea. Askotan anaforiko bat ez erabiltzeagatik, esaldia maingu uzten dugu. Adibidez, Ebanjelioko pasarte hura: «Sic enim Deus dilexit mundum, ut Filium suum unigenitum daret»¹⁶, edozein euskaltakako gure idazle zaharrek guztiz ongi itzultzen zekiten; gure mendekoek, ordea, anaforikoa ez erabiltzeagatik pasartearen indarra itzuli gabe uzten dute. Euskal bost eliz barrutietako Itun Berriak (1980) honela itzultzen du: «Hain maite izan bait du Jaungoikoak mundua, bere Seme bakarra eman dio». Zorionean Elizen arteko Bibliaren Itun Berria (1983) honetan bide zuzenera bueltatu dela esan genezake: «Izan ere, Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarra eman bait zion».

Idazleak, eta askotan bai hizlariak ere, perpausaren hastean zerbait jarri beharra somatzen du: erlatibo, juntagailu, anaforiko edo nahi duzuna, gero etorriko denaren albistari izan dadin, eta anaforikoez guztiz ongi betetzen dute betebeharrak hau. Itzulpenetan batez ere premia-premiazko gertatzen da hori: «*Porque él mismo, la noche en que iba a ser entregado, tomó pan...*»; baina baita itzulpenetatik kanpo ere.

Zernahi gisaz, anaforikoen murrizte hori tradizio literarioaz haustura bat izan da, eta bai herriko euskara biziaz ere, zeren eta herriko euskarari, maila apalagoan bada ere, bizi-bizirik baitago anaforikoen erabilera.

Zeintzuk arrazoi atera dira anaforikoak euskara idatzitik aurtikitzeko? Nik bi ezagutzen ditut: 1) Berez galdetzaile direla elementu horiek, eta berena ez den ofizioa betetzeko hartu ohi direla anaforiko bezala hartzen direnean. 2) Aldameneko beste hizkuntzen eraginez sartu direla eraikuntza horiek euskarari, eta, beraz, arrotzak izanik, baztertu egin behar direla.

Baina arrazoi horietarik ez bata eta ez besteak ez dirudi onartzekoa denik.

Euskal galdetzaileak ez dira galdetzaile huts-soilak, denbora berean galdetzaile eta mugatuga-beak (indefinituak) baizik. Hala aitortzen du René Lafon-ek¹⁷. Hori hala izanik, erlatibo batzuk izatera heltzea oso erraza zen.

Beste hizkuntzen eraginez gertatu dela hori euskaraz? Baliteke, baina hori ere ez da segurua. Hizkuntzan bertan zegoen horretarako gaia edo hazia. Agian beste hizkuntzetan gertatzen dena ikusteak lagundu zuen euskaraz gauza bera egin zedin, baina hori egin ahal izan da etxe barruan bertan hartarako gaitasuna zegoelako.

Dirudienek, gainera, beste hizkuntzetan ere, hizkuntza horien kondaira aztertuz, eboluzio berbera gertatu dela nabaitzen da: lehenik galdetzaile zirenak gero erlatibo zeregina egiteko ere hartuak izan direla, eta, hargatik, bigarren zeregin hau ez da madarikatua izan, gure artean bezala.

Hizkuntza batean erro sakonak eginak dituzten eraikuntzak hizkuntza haren altxor edo seniparte bilakatu dira. Seniparte hori ezin aurtiki daiteke kanpora, hizkuntza bera on-behar errendatu gabe eta idazlea baliamentuek gabetua utzi gabe.

Azkue berak aitortzen du¹⁸ anaforikoetara jo gabe beste hizkuntzetako esaldi batzuk ezin itzul daitezkeela. Baina aitortza hori egin eta, fite bere burua lasaitzen du esanez: euskarak ere badituela zenbait gauza erdarara hitzez-hitz ezin itzulizkoak direnak.

¹⁶ Jo 3, 16.

¹⁷ R. Lafon, *Le système du verbe basque au XVI^e siècle* I, pp. 488-489.

¹⁸ Azkue, *Diccionario* II, p. 61.

Balio ote du, ordea, ihespide honek? Ez dut uste. Euskaraz egon daitezke esaera edo itzulika batzuk hitzez-hitz erdaretara ezin itzul daitezkeenak. Baina hemen ez gara hortaz ari: bada subordinazio sistema bat Mendebaleko hizkuntza landu guztietan onartua dena eta guk ere behar-beharrezko duguna eta gure idazleek erabili dutena, gainera. Zilegi ote da etxeko ondasuna leihotik kanpora botatzea horren beharrean garenean?

Santuario de Aránzazu
Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia

FR. LUIS VILLASANTE O.F.M.

BIBLIOGRAFIA

Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima, lehenbiko comunionea eguitera preparatzen diren Haurrençat. P. Guillaume de Lavieuvville Bayonaco Jaun Aphezpiciuaren manuz imprimatua. Haren Diocesan hau choilqui irakhasteco. Bayonan, P. Fauvet, Erregueren eta Jaun Aphezpiciuaren Imprimatçaillea baithan, Carmesetaco aldean. M.DCC.XXXIII. Orrialdeak 467. Neurriak 147 × 122 mm.